# Errekalde Gizarte Etxea

## + auzoa: aurkezpena 02

// eraikin industrial hiritarraren moldaketa

gral 2015 // josu aguilar medina // tut_ula iruretagoiena



e1:7 500 // + 1928 (gh1) +

+ XX. mendearen hasieran, ez zegoen eraikuntza askorik. Rekaldeberri auzo isolatuta aurkitzen zen Bilboko gainerako auzoetatik, jadanik trenbidea baitzegoen. Trenbidea zeharkatzea ez zen erraza: pasoak ez ziren ugariak, zeuden gutxiak maila berekoak ziren eta gainera, hauen egoera ez zen egokia.



e1:7 500 // + 1975 (gh3) +

+ Garapen historikoaren etapa honetan aldaketa asko eman ziren. Auzoan industriaguneak kokatu ziren eta honek ondorioztatu zuen jende asko bertara etortzea. Demografiaren hazkuntza azkarrak hirigintza desegoki eta desordenatu bat sortu zuen. Hirigintza arazoek -isolatuta ere jarraitzen baitzen- gatazka sozio-politikoekin batera -errepidearen eraikitzeak ere gehiago indartu zituen eta auzo ere isolatuago utzi zuena- auzo marjinatu baten irudia eman zioten.

### + garapen historikoa (p2t1)

+ Jarraian, Rekaldeberri auzoak azken ehun urteetan jasan dituen aldaketak deskribatuko dira, hirigintzaren eta eraikuntzen analisi gisa.



e1:7 500 // + 1940 (gh2) +

+ XX. mende erdialdera auzo landa eremu ustiatuago batean bilakatu zen. Baserriak eraikitzen hasi ziren eta baratzak oso zabalduak zeuden. Hirigintza mailan isolatuta jarraitzen zuen.



e1:7 500 // + gaur egun (gh4) +

+ Gaur egungo egoera ez da oso ezberdina. Aldaketa nagusiena trenbidearen lurperatzea da. 1975. urteko arazo berberak dauzkate rekaldetarrek. Ondorengo analisia eta berrantolaketa egoera hura aldatzeko pentsatuta dago.



e1:2 500 // + oina (t2o1) +

### + Rekaldeberri / industriag. berrik. (p2t2)

+ Gaurkotasuna industriaguneen berrikuntza

+ Trenbidearen presentzia Errekalde auzoaren izaerarekin loturik izan da, trenbide sarea industria guneari zerbitzua emateko jaio zelako. Errekalden beraz, industria eraikin asko izan dira, gaur egun industriagunearen zati txiki bat besterik zutik gelditzen den arren.

+ Bilboren eraldatze prozesuan industria zikinaren gainbeheragatik industria bota eta etxebizitzak egin dira azken urteotan. Indarrean den HAPOk egoitza kalifikazioa zehazten duen arren gelditzen den industriagunerako, Errekaldeko auzo mugimenduaren aldarrikapena industria eraikinetan bestelako aktibitateak sustatzea da, eta honekin batera Bilboko hiri eredu berriaren moldaketarako bidea sortzea.

+ Errekaldeko gatazka konkretuaz ari garen arren, gogoeta Euskal Herriko beste hainbat testuingurura trasladatu daiteke egoera parekoan beste hainbeste kokaleku baitira, horra hor gaiaren egunerokotasuna eta gogoeta beharra.

### + Ikerketa eremua (p2t3)

+ Errekaldeko industriagunea zabala bada ere, ikerketa eremua bi etxe irletara mugatzen da. Etxe irla hauetako eraikinek fatxada ematen diote trenbideak utziko duen espazio berriari (Diaz Enparantza kalea) eta bestalde Moncada kalea konformatzen dute. Inguruko beste etxe irletan industria eraikinak eta etxebizitza eraikinak nahasian ageri dira.

+ Hautatutako etxe irlek sakonera handiena dute, antolaketa berriak aukera anitzak jasotzeko potentziala izan dezakelakoan arrazoi honengatik.

### + esku hartze eremua (p2t3)

+ Eraikin industrial urbanoa

+ Ikerketa eremuaren etxe irla bateko eraikina aukeratu da ariketa tipologikoa garatzeko. Eraikin industrial hauek etxe irla bat osatzen dute, eta hor tipologia honen berezitasuna.